

**EUROPAKO  
ESKUALDEETAKO  
LEGE BILTZARREN  
BATZARRA  
(EELB)**

**MADEIRAKO  
ADIERAZPENA**

**Funchal, 2001eko urriaren 30a**

**Aho batez onartua**



Aginte legegilea duten eskualdeetako legebiltzarrek Europan segurtasuna, bakea eta ongizatea sustatzeko Europar Batasunak duen garrantzi handia nabarmendu nahi dute berriz ere. Europaren batasun-prozesuak, laster EB ekialdera hedatzearekin beste dimentsio bat hartuko duenak, ondorio garrantzitsuak izan ditu estatu kideetako barneko aginte-egituren esparruan. Gobernuen arteko hurrengo biltzarrean aztergai izango diren gai jakin batzuk (eskumenak Europar Batasunaren eta estatu kideen artean banatzea, esate baterako) erronka berri izango dira legebiltzar nazionaletarako ez ezik legebiltzar federaletarako eta eskualdeetako legebiltzarretarako. Erronka berri horiek eskakizun dute, nagusiki, estatu kideen errealitate juridiko-konstituzionaletarako erantzun objektiboak eta egokiak bilatzea.

Testuinguru juridiko-politiko berri hori kontuan izanik eta Europako, nazioko eta eskualdeko eskumenak modu zuzen eta orekatuan banatzeko interesa berretsiz, honako erabakia hartu zuten Funchal hirian, Madeirako Eskualde Autonomoan, bildutako Europako eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak.

## **1. Nizako gobernuen arteko biltzarraren (GAB) emaitzak**

Eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak Europar Batasunaren bilakaeraren ezinbesteko pausotzat jotzen dute Nizan estatuburuek eta gobernuburuek lortutako akordioa.

Nizako gobernuen arteko biltzarraren (GAB) azken emaitzak ez datozen arren guztiz bat estatu kideetako batzuen iritzi publikoak sortutako itxaropenekin, batez ere Europako erakundeak eraberritzeari eta Batasunaren erabakitzeko prozesua sinplifikatzeari dagokienez, EBren hurrengo hedapenatarako beharrezko baldintzak ezarri dituzte. Bide horretatik, Europar Batasunak gure kontinentearen zatiketa gainditzeko, segurtasuna eta bakea bermatzeko eta Europari ongizate handiagoa emateko zeregin historikoa betetzen jarraitu ahal izango du.

Hartutako konpromisoen ondoan Nizan lortutako emaitzak nahikoak ez zirela izan ikusita, gobernuen arteko beste biltzar bat programatu zuten egun haietan. Biltzar horren helburu nagusietako bat izango zen "Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumenen mugaketa zehatzagoa ezartzea, subsidiariorotasun-printzipioa errespetatzeko".

Lehendakarion ustez benetan garrantzitsua da, Batasunaren etorkizunari begira, eskumenen mugaketa hori ezartzea eta eskualdeetako erakunde legegileek prozesu horretan izango duten parte-hartzea definitzea.

## **2. Nizaren osteko prozesua**

Europar Batasuneko eskualdeetako legebiltzarretako lehendakarien ustez, honako premisak izan behar lituzke kontuan eta ondorengo berariazko gai hauei heldu behar lieke 2004ko gobernuen arteko biltzarrak (GAB):

### **a) Eskumenak mugatzea**

20 kide baino gehiago izango dituen Batasunak —bertan desberdintasun ekonomiko, sozial eta kulturalak nabarmen ugarituko dira— helburu nagusi batzuetara mugatu beharko du bere jarduna, hain zuzen ere, dena delako ekintzaren dimentsioaren edo izan ditzakeen ondorioen arabera Batasunaren mailan hobeto gauza daitezkeenetara.

Hortaz, ezinbestekoa izango da eskumenak hobeto mugatzea, hurbiltasun-printzipioaren arabera, politikak prestatzeko eta gauzatzeko garaian, jarduteko esparruak eta estatu kideen eta eskualdeen erantzukizun politikoak hobeto definituko direla bermatzeko. Hori guztia erabakiak beti irekitasun-printzipioa eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen jarduteko irizpidea erabat errespetatuz hartzen direla ziurtzat jota.

Erakunde politikoek jarduteko esparruak eta erantzukizun-mailak argitzen badira, herritarrek hobeto ezagutu eta onartu ahal izango dute Europar Batasunaren ekintza eta horrek Batasuna indartzen lagunduko du.

### **b) Subsidiariorotasun-printzipioa Batasuneko eskumenen araberako jarduna arautzeko irizpide gisa**

Europako, nazioetako eta eskualdeetako erakundeek artean eskumenak hobeto mugatzeari dagokionez, Europar Batasunak ezinbestean egin beharreko zereginak aztertu beharko dira.

Subsidiariorotasun-printzipioak —funtsean erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartu beharko direla dioenak— izan beharko du oinarritzko irizpide gaur egun Europar Batasunaren eta estatu kideen artean banatuta dituzten eskumenen araberako jarduna arautzeko garaian eta, bereziki, Batasunaren mailako ekimenaren ekintza berriak justifikatzeko unean.

### **c) Eskumenak garbi mugatzea**

Hurrengo GABari begira, onuragarria litzateke EEren Ituneko 3. artikuluko helburuen zerrenda zabalaren ordezkumenen enuntziario garbia aurkeztea. Helburu hori aintzat hartuta, Batasunaren egintzen hierarkia hartu beharko da barne itunetan, baita Batasunaren eskumenak adieraziko dituen zerrenda ere.

### **d) EEren Itunaren 308. artikuluen analisia (Batasuneko erakundeei eskumen berriak egotzea itunaren helburuetako bat gauzatzeko)**

Biltzarrean ados agertu ziren itunaren 308. artikuluen analisia egitearekin, ondoren kendu ahal izateko, gobernuen arteko hurrengo biltzarren testuinguruan.

### **e) Estatu kideen eta Batasuneko erakundeen arteko lankidetzaren leialaren printzipioaren elkarrekotasuna (EEko 10. art.)**

Estatu kideen eta Batasuneko erakundeen arteko lankidetzaren leialaren printzipioak bi norakoetan funtzionatu beharko du etorkizunean, hau da, elkarrekotasuna izan behar du, itunaren arabera dagozkien betebeharrak betetzeari dagokionez.

Horretarako, beste pasarte bat gehitu beharko zaio EEko Itunaren 10. artikuluari, batasuneko erakundeei bertan definitutako lankidetzaren leialaren printzipioa errespetatzeko betebeharra ezartzeko, estatu kideekiko harremanei dagokienez, eta bereziki, azken horietako konstituzio-egiturak errespetatzeko.

### **f) Eskumenak mugatzea eta Gobernazioari buruzko Europako Batzordearen Liburu Zuria - "New Governance"**

Batasunaren eskumenen mugaketa argitzearekin bat, kontuan hartzekoa da Batzordeak gaur egungo erakunde-esparruan jardun hobeaz lortzeko egindako ahalegina. Ahalegin horrek eraman zuen gobernatze onari buruzko liburu zuria onartzera (New Governance). Testuinguru horretan, presakoa da Amsterdamgo Itunak eranskin gisa duen subsidiarioritasunari eta proportzioari buruzko protokoloa hobeto aplikatzea, legegintzakoak ez diren esku hartzeko bitartekoetara jotzea, Batzordearen kontsultarako prozesuak hobetzea, nazioetako eta eskualdeetako legebiltzarrei zeregin garrantzitsuagoa ematea eta elkartzearen legezko kontzeptua sortzea. Batasuneko aginteen jardun eraginkorrarekin eta, helburu hori gogoan, elkartzeko modu

demokratikoagoak sustatzearekin zerikusia duten auziek, ordea, ez dute saihesten Batasuneko erakundeen eta estatu kideen artean eskumenak garbi mugatzearen premia, 2004ko gobernuen arteko biltzarrari begira.

### **g) Aginte legegilea duten eskualdeen estatutua**

2004ko GABean jorratu beharreko gaien artean Batasuneko erakundeen funtzionamenduaren esparruan eskualdeek izan beharreko zereginaren eta estatutuaren gaia barne hartzea proposatzen dute lehendakariak.

Testuinguru horretan, aginte legegilea duten eskualdeek berariazko tratamendua izan beharko dute etorkizuneko "aginte legegilea duten eskualdeen estatutua" onesteko itunetan.

Gai hauek hartu behar lituzke barne estatutu horrek, besteak beste:

- Eskualdeen eskubide prozesalak itunen esparruan.
- Eskualdeetako legebiltzarrek kontsulta egiteko prozesua sortzea, Batzordeak eskualdeen interesekoak izango diren ekimen berriak onartu aurretik.
- Eskualdeetako legebiltzarrek erakunde-harremanak ezartzea Europako Legebiltzarrarekin eta Eskualdeetako Batzordearekin.
- Eskualdeetako legebiltzarrek eskubidea izatea Europako erakundeei ekarpenak egiteko erakundeen baitan eztabaidatzen ari diren neurrien kasuan, hurbiltasun, subsidiarotasun eta proportzioarekin zerikusia duten printzipioak aplikatzearen inguruan.

## **3. Eskualdeekin zerikusia duten beste gai batzuk**

### **a) Eskualdeetako Batzordea indartzea**

Lehendakariak pozik agertu dira Nizako Itunak berariaz aurreikusten duelako Eskualdeetako Batzordeko kideek nahitaez izan behar dutela kargu politiko baten titular. Alabaina, lehendakarien ustez, Eskualdeetako Batzordeak Batasunari dagozkion erabakiak hartzeko prozesuan duen parte-hartzea garatzen eta sakontzen jarraitu behar dugu. Horretarako, honakoa proposatzen dute lehendakariak:

- Eskualdeetako Batzordeari Batasuneko erakundearen estatutua aitortzea.
- Eskualdeetako Batzordeari legitimotasun prozesal aktiboa egozte bere eskubideak eta onurabideak babesteko, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiarekin batera.
- Batzordeak aldizka aurkeztea Eskualdeetako Batzordeari azken horren iritzien inguruko jarrerak eta ekintzak justifikatzen dituen txostena.
- Eskualdeetako Batzordearen iritziak baztertuz gero, Batzordeak bere erabakiaren justifikazioa aurkezteko betebeharra izatea.
- Eskualdeetako Batzordearen eta Europako Legebiltzarraren arteko lankidetzarako bideak indartzea.

#### **b) Estatu federatuek eta eskualdeek Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren aurrean esku hartzeko eskubidea**

Estatu federatuei eta agente legegilea duten eskualdeei legitimotasun prozesala (pasiboa eta aktiboa) aitortu beharko zaie Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren aurrean esku hartzeko, beren konstituzio-eskubideak eta barne-eskumenak babesteko eta subsidiarioritasun- eta proportzio-printzipioak egoki aplikatzeko.

Eskubide horrek nabarmen indartuko du subsidiarioritasun-printzipioaren aplikazioa eta erabaki politikoak eta Europako herritarrak elkarrengandik hurbilago egongo direla bermatuko du.

#### **c) Eskualdeko eta tokiko administrazioaren eskubideak**

Prozesu politikoa Europar Batasuneko herritarrei hurbiltzeko, Europako itunetan bermatu beharko dira autoadministrazioarako eskubideak. Gauza bera aplikatuko da gizarte-segurantzako erregimenetarako, horiek estatu kideen eskumenen esparru pribilegiatuan jarraitu beharko dute eta.

#### **d) Eskualde insularrak eta ultraperiferikoak**

EELBk berariaz aitortzen du Europar Batasuneko eskualde insularrak eta ultraperiferikoak desabantaila-egoeran daudela.



#### **4. Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutunaren estatutua**

Nizan Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutuna onartzeak poztu ditu lehendakariak. Gutuna funtsezko urratsa da herritarren Europarako bidean, Europar Batasuneko herritar guztiek oinarrizko eskubide komunen multzoa dutela baieztatzen duen neurrian.

2004ko gobernuen arteko biltzarraren helburuetako bat izan behar luke gutunari izaera juridiko loteslea egozteak, Batasunaren itunetan barne hartzearen bidez. Haatik, gutuna barne hartzeak ez du berekin ekarri behar Batasuneko erakundeen eskumenen eremua zabaltzea.

Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutuna aldarrikatzearekin batera, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaidari eman zaio bide. Estatu kideen kopurua gero eta handiagoa dela kontuan izanik, ezinbesteko dirudi Europar Batasunaren printzipioei eta azken helburuei buruz eztabaidatzeak. Eztabaida horrek erakunde-alderdiak hartu beharko ditu kontuan, baina ez du horretarako mugatu behar. Eskualdeetako legebiltzarrei eta gobernuari dagokie ahalik eta zabalena izango den eztabaida publikoa sustatzea. Eztabaida horrek gizarte-talde guztiak eta erakunde publiko zein pribatuak hartu beharko ditu kontuan, baita nortasun europarraren adierazpideak eta elkarreragiteko prozesuaren xedea ere.

Eztabaida horretan, erantzukizun berezia izango dute Europar Batasuneko herriak ordezkatzeko dituzten organo eta erakundeak, eskualdeen burujabetzaren eta identitatearen egiazko administratzaile direnez. Horretarako, ezinbestekoa da elkartasun aktiboa izatea legebiltzarren artean, hainbat ordezkartza-mailatan.

Eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak berresten dute egokia litzatekeela Europako Kontseiluak Nizan onartutako Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutuna itun berrian barne hartzea edo juridikoki loteslea izango den dokumentutzat jotzea.

## **5. Legebiltzarren zeregina Europaren arkitekturan**

«Legebiltzar nazionalekin eta Europako Legebiltzarrarekin batera, Europa eraikitzekeo prozesuaren baitako ezinbesteko tresna dira eskualdeetako legebiltzarrak. Prozesu horretan legebiltzarren arteko lankidetzaren printzipioak izan behar du nagusi. Printzipio horrek eskakizun du erakunde-mailak artikulatzea eta hiru legebiltzar-mailen —Europakoaren, nazionalen eta eskualdeetakoen— arteko harremanetarako prozedurak antolatzea. Hori lortzeko, komenigarritzat jo da:

i) Eskualdeetako legebiltzarrek Europar Batasuneko estatu kideen baitan duten zeregina indartzea, Europako prozesuarekin lotura duten erabakiak hartzearekin eta gauzatzearekin zerikusia duten esparru guztietan bermatzeko nahitaezko koefiziente demokratikoa. Horretarako, eskualde horiei dagozkien legebiltzar nazionalekin harremanak izateko bide egonkorak ezarri eta, hala badagokio, finkatu beharko dira.

ii) EEGEOB (Europako Erkidegoko Gaietan Espezializatutako Organoen Biltzarra) eskualdeetako legebiltzarrei irekitzea.

iii) Europar Batasuneko testu eta erakundeetan gero eta gehiago aitortzea eskualdeetako legebiltzarrak, 1999ko apirilaren 15eko Europako Legebiltzarraren Erabakiak (51. paragrafoa), ituna aldatu gabe erakundeen funtzionamendua hobetzeari buruzkoak, zedarritutako bideari jarraiki. Horretarako, Europako eskualdeetako legebiltzarretarako Europar Batasunean legebiltzar nazionalak duten zereginari buruzko Amsterdamgo Ituneko protokoloaren antzekoa lortzeko egin behar dugu lan»

## **6. 2004ko gobernuen arteko biltzarra (GAB) prestatzea**

Lehendakariak oso egoki iritzi diote Nizako gobernuen arteko biltzarrak Kontseiluko lehendakaritza suediarri eta belgikarri hurrengo GABa prestatzeko eskatu izanari. Hori dela eta, urte hasieratik bertatik eman zaio hasiera eztabaida europarrari, estatu kideetako legebiltzarrak eta Europar Batasunaren etorkizunaren inguruko interesa duten gainerako legebiltzarrak tartean direla.

Eztabaida horretan eskualdeetako legebiltzarrak ere barne hartuko direlakoan dira lehendakariak. Horiek barne hartzeak eztabaida publikoa zabalagoa izatea ahalbidetuko du,

eta legebiltzar horiek herritarrentzat duten bitartekaritza-zeregina sustatuko da. Eskualdeetako legebiltzarrek hurrengo urteetan eskainitako aukera eta foro guztiez baliatu beharko dute.

Batasun-prozesua gardenagoa izan dadin eta legitimotasun demokratiko handiagoa izan dezan, foro hedatua eratu beharko litzateke gobernuen arteko hurrengo biltzarra prestatzeko. Hainbat legebiltzar eta gobernu nazionaletako, Batzordeko, Europako Legebiltzarreko eta eskualdeetako legebiltzarretako ordezkariak bildu behar litzuzke foro horrek.

Lehendakarien ustez, estatu kideek eskualdeei eta horiek Europar Batasunaren funtzionamendu onean duten garrantziari emandako arretaren, hori ulertzearen eta horri garrantzia ematearen mendeko izango da, zuzenean, gobernuen arteko hurrengo biltzarren arrakasta. Eskualdeetako legebiltzarrek helburu bat gauzatzen lagun dezakete, eskualdeetako aginteak ordezkaturako dituzten erakunde guztiak barne hartuko dituen eztabaida europarra ezartzearen bidez.

Testuinguru horretan, honakoak dira azpimarratu beharreko Europako eta eskualdeetako erakundeak: Eskualdeetako Batzordea, Europako Eskualdeetako eta Tokiko Agintarien Biltzarra, Europako Eskualdeetako Batzarra eta aginte legegilea duten Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarra.

Batasun hedatuan, askoz esanguratsuagoa izango da eskualdeen arteko lankidetzak, Europar Batasuneko aginte legegileek eragin handiagoa izango dutelako eskualdeetan.

Bistan denez, estatu federatuetako eta eskumen legegilea duten eskualdeetako legebiltzarrek garrantzi handiagoa izango dute prozesu honetan.

## **7. Europar Batasuna hedatzea**

Lehendakarien ustez Batasuna hedatzea politikak eta ekonomiak agintzen duten zerbait da, eta ez dago arrazoizko beste alternatibarik.

Batasuna hedatzeak aukera ekonomiko bikainak eskainiko dizkie gaur egungo estatu kide gehienei, 500 milioi kontsumitzaile inguruko barne-merkatu homogoneoa sortuko baita.

Lehendakariak Europar Batasuna azkar hedatzearen aldekoak dira. Nizako akordioak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera estatu kide berriak barne hartzeko ezinbesteko erakunde-baldintzak ezarri zituen. Orain estatu horiek bermatu behar dute Batasunari atxikitzeko irizpide politikoak eta ekonomikoak (Kopenhageko irizpideak) betetzen dituztela.

Gaur egun estatu kide diren herritarren bazterketa politiko eta ekonomikoarekin zerikusia duten fenomenoek aurrea hartzeko, iragaite-epe egokiak ezarri beharko dira, lehendakarien ustez, batez ere Europar Batasunaren egitura politikoari, pertsonen joan-etorri askeari, kohesio ekonomikorako politikari eta nekazaritzako politika bateratuari (NPB) dagokienez.

Lehendakarien aburuz, Batasuna hedatzeko finantziarioak Batasuneko estatu kideen arteko bidezko zeregin-banaketan oinarritu beharko du, aurreikus daitekeenez horrek herri bakoitzaren egoera zehatzean izan ditzakeen eraginak kontuan izanik. Horretarako, presakoa da Batasuneko hainbat politika eta Europar Batasunaren egitura politikoaren eraberritzeko zenbait neurri aurreratzea, lurraldeen arteko elkartasunari, kohesioari, NPBarri eta Batasunaren finantzei dagokienez.

## **8. Legebiltzar federalek Europar Batasuna hedatzeari egindako ekarpena**

### **a) Mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren indartzea izangai diren estatu-estatu eskualdeekin**

Lehendakarien ustez, gaur egungo estatu kideetako eskualdeak eta izangai diren herrialdeetakoak hurbilduko dituen mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren batez ere eskualdeetako legebiltzarren mailan gauzatutakoa, oso lagungarri izan daiteke estatu horiek Batasunera hurbiltzeko eta horrekin batzeko.

Gaur egungo estatu kideetako eskualdeetako legebiltzarrek legebiltzar-lankidetzarako sareak sortzea sustatu beharko dute, Itsaso Baltikoan dagoeneko badituzten sareen adibideari jarraiki, bertan Reno Garaiko Eskualdeen arteko Legebiltzar Kontseilua baitute.

Izangai diren herrialdeen atxikitzea errazteaz gain, elkarte horiek herritarrengandik hurbilago egongo den Europar Batasuna eraikitzen laguntzen dute, eta bide horretatik, elkartasun-sentimendua indartzen, Batasunaren esparruan.

Bestalde, izangai diren herrialdeetako eskualdeekiko lankidetzaren tresna garrantzitsua izango da izangai diren estatuen baitan gobernu-egitura deszentralizatuak sustatzeko eta garatzeko.

Lehendakarien ustez, izangai diren estatuen atxikitzeak arrakasta izateko, funtsezkoa da horiek administrazio-egitura eraginkorrek izatea eskura. Testuinguru horretan, eskualdeetako legebiltzarrek bertako funtzionarioen eta izangai diren herrialdeetako funtzionarioen arteko trukea sustatzeko ahalegina egitea proposatzen dute lehendakariak.

#### **b) Eskualdeetako legebiltzarren zeregina Batasunaren etorkizunari buruzko iritzi publiko europarra osatzeko garaian.**

Lehendakarien ustez, Europar Batasuna hedatzeko prozesuak Europako herrien babesaren baldin badu bakarrik izango du erabateko arrakasta. Hortaz, Batasuna hedatzeak dakartzen erronken eta aukeren jakinaren gainean egon beharko dute herritarrek. Hedatzearen onura politikoak eta ekonomikoak izan daitezkeen arriskuak baino handiagoak direla eta horiek arintzen dituztela nabarmendu beharko zaie.

Eskualdeetako legebiltzarrei gonbitea egin zaie zeregin aktiboagoa izateko iritzi publiko europarra osatzeko prozesuan. Eskualdeetako legebiltzarrek kapital nabarmena dute, erabakiak herritarrengandik hurbil hartzen direnez eta subsidiarotasun-printzipioa aplikatzen denez, eta hori behar bezala balioetsi beharko da Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaiden testuinguruan. EBren etorkizuneko egiturari buruzko eztabaida egiterakoan Europako herritarren interesak eta kezkek izan beharko dira kontuan. Eskualdeetako legebiltzarrei egokituko zaie orain hasiko den eztabaidan herritarrei behar bezala entzungo zaiela ziurtatzea. Horretarako, bitartekari pribilegiatuen zeregina hartu beharko dute beren gain, ahalik eta ahobatezkoena izatea nahi genukeen adostasuna lortzeko bidean.